


9.– FENIZIARRAK (K.A. 1100-650)



Feniziarrak sal-erosle: non-zer.

Babilonia, Asiria eta inguruko erreñuak, nork nori aginduko burrukan ebiltzala, Lurrarte Itxasoaren inguruko urietan feliziar azoka-zaleak agertu ziran eta egunerik egunera indar aundiago ta aberastasun geiago lortzen joiazan.

Gauza arrigarria gudarako berotasunik ez euken Tiro eta Sidon, uri laterria armadunak baiño menperatu eziñagoak agertzea. Gudaroste indartsuak jokatu eben euren aurka, baiña Tiro'k eta Sidon'ek euren merkataritzan jarraitu eben.

India, Txina, Ego-Afrika Ejipto eta Babilonia'tik ganbelu ilara luzeak, mendi ta basamortuetatik zear, Fenizia'ko kaietara urreratzen ziran euren zamalariakaz merkataritza ontziak beteten ebezela.

Feniziarrak saltzen ebezan salgaietatik gurenak, purpura-kolore gaiak eta suillak ziran, eta orrekaz batera ontzietan bialtzen ebezan datil eta iko-aleak jateko, eun fiñak artulea eta bitxiak jatzeko; kobrea, brontzea, sidarra eta urrea langaiak egiteko.

Mariñel trebe areik aize oialak ontzia bultzatzeko ebezela ebiltzan feniziarren itxas-intzi astunak itxasoan zear. Bide'ko kaietan, bai, euren Kartago feniziar aretan geldialdiak eginda. Eta alderik alde zearkatzen eben Lurrarte Itxasoa eta Afrika'ren itxas-ertzari ondo eutsita, okerrin bat gertatu ez ekien, urriñago eltzen ziran.

Sortalderatza naiz iparralderantz bidea artuta, Troia'ko kaira be eldu ziran iñoz Ejeo itxasoaren ugarte

artetik, Kreta'ko uri aberatsak ikertu ebezan eta Zerdeña ta Kortzega ta España'n koloniak sortu be bai.

Itxaso illunen barruan trebeenak eta ausartenak ziran, ipuiñetan edesten diran sekulako arriskuen bildur aundirik barik: Ekatz ikaragarriak, itxasoko pizti bilduragarriak, eta azkenik, "itxas-zurrupe" edo biurrikeriak.

Feniziarrak ondo ekien itxaso illuna ez zala ipuiñak iñoen bestean arriskugarria. Eta aurrera jarraitu eben beti, ingles landubakoai be metal ez-ezagunak erosi eta etxerantza ekarteko.

Mariñel batzuk Persia'ko itxas kolkotik India'ko itxas aundira eldu ziran eta andik Afrika-barrenera joan be bai itxaropen Ona'rena diritxon lur-erpiñetik gon eta euren Lurrarte-Itxaso ezagunera biurtu arte. Bideko kaietan iru urteko ibillaldi luze orren barruan, geldaldi laburrak egiten ebezan eta ango aziak ekarri be bai, naizta euren etxeakoak ori egia zanik sinistu ezin izan.

Feniziarrena da munduan izan dan abederik zaarrera, baiña eurak ez eben eskola-lanik egin.

Azoketan Babiloniarrak izaten ebezan norgeiakoka eta euren maillara eldu ziran jakintza, ederti eta erlejiño-arloetan. Erlejiño biak ziran gogor eta odolzaleak.

Eske on zor dautso munduan Feniziarren erriari euren ontzietan sortaldeko salgaiakaz batera edertia ta giza-lantzea zabaldu ebelako.

Olazar'tar Martin'ek